

• IRITZIAREN LEIHOA •

Gorka Moreno Márquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Karoshi: hiltzeraino lan egin

K

aroshi hitzak hiltzeraino lan egitea edota lan egiten hiltzea esan nahi du japonieraz, eta honen harira gehiegi lan egiteagatik loturiko gaitz soziala izango litzateke. Fenomeno hau 60eko

eta 70eko hamarkadetan hasi zen, baina benetako garapena 80. hamarkadan zehar –Japoniako *boom* ekonomikoari lotuta– sendotu zen. Gaur egun, batzuek dioten arabera urtero 10.000 eta 20.000 langile dira Karoshiagatik edo gehiegi lan egiteagatik hiltzen direnak, oro har gizonezkoak (40-60 urte bitartekoak) eta bihotzekoak edota antzeko gaitzek jota.

Japoniar kulturen ordu estrak egitea eta enpresaren alde jardutea ohoretzat jotzen da. Baina hau ez da arrazoi bakarra, azkeneko 20-30 urteetan lan erritmo are eta estresagarriagoak sartu dira sektore ekonomiko anitzetan, gehienbat teknologia berriei lotuta dauden kasuetan. Zentzu honetan, ez dira batere arraroak izaten 60 edota 70 orduko aste lanaldiak edota ordu berean askoz ere eginkizun eta betebeharrak gehiago edukitzea.

Adibide japoniarra muturrekoa izanik ere, gero eta ohikoagoak dira ezaugarri hauek lurralde garatuetan, baita, noski, gure inguruan ere. Horrela bada, langile askok gero eta estres gehiago pairatzen dute beren lantoki-



INIGO AZKONA

kietan eta honek hainbat patologia sorrarazi ditu, fisikoak zein sozialak. Denok izan dugu hainbat gertakarien berri. Hauetako bat, duela gutxi komunikabideetan azaldu da, Renault enpresako Parisko egoitza batean gertatua: oso denbora gutxian hiru langilek –kargu eta soldata onekoak– bere buruaz beste egin zuten, zuzendaritzak ezarritako presioak eta erritmoak ezin jasanda. Lehen, hiru edo lau kotxe berri sortu behar bazituzten urtero, orain sei ziren egin beharrekoak. Orain dela aste gutxi halaber, Londresen euskal jatorriko goi exekutibo batekin gertatutako afera ere hor dugu, dirudienez jasan behar zituen presioek eta tentsioek eragin handia izan zuten bere portaeran.

Hortaz, multinazional eta enpresa handien atzean, langile perfektuen eta garaileen atzean, dena ez da urrea, dena ez da Silicon Valleyn marrazki bizidunetako istorio polit bat. Langileentzako balizko erosotasun eta laguntzen atzean iluntasunak daude eta askotan baldintza gogorak ezkututzen dira. Bide honetan, askotan langileen eta pertsonen aurka doazen lan baldintzak eta erritmo estresagarriak baino ez daude, nahiz eta gehienetan alde argitsua baino ez saldu. ■

«
Duela gutxi komunikabideetan
azaldu da, Renault enpresako
Parisko egoitza batean gertatuta:
oso denbora gutxian hiru langilek
bere buruaz beste egin zuten,
zuzendaritzaren ezarritako
presioak eta erritmoak ezin jasan
»

TXANDAN

Joxerra Garzia



Mehatxu globala. Hala zioen, gatzeleraz, euskal hiztunetan dentsitate handiena duen probintzian gehien saltzen

den egunkariak duela egun batzuk argitaratutako editorialaren izenburuak. Yemengo atentatua eta Erresuma Batuko lehergailuak abiapuntu hartuta, Irailaren 11 eta Martxoaren 14a aipatzen zituen, besteak beste, frogatzat; kausatzat, berriz, fanatiko batzuen sektarismo esker txarrekoa.

Kazetaritza ikasleei berehala irakasten zaientzako da. Ganorazko albiste izateko, aski da hildako bakar bat, hildako hori gertukoa bada; zenbat eta urutiagokoak izan, orduan eta hildako gehiago behar albistea osatzeko.

Kontraesanak

Izan ere, gertuko hildakoek izen-abizenak dituzte, eta lanbidea, eta pasadizoak, eta pasadizoak xamurki kontatuko dituzten lagunak, eta fami-

lia, eta bete gabe utzitako ametsak. Urrutiko hildakoek, aldiz, ez dute deus ere horrelakorik: hildako hilak dira. Gureak, berriz, hildako biziak –kontraesanak-kontraizanak–.

Hildakoak horrela sailkatuta bakarrik uler daiteke “mehatxu globala” editorialak aipatzen duen hori izatea, eta 800 bat milioi pertsonak jasaten duten gosetea, edo Irakeko zibilak euli gisa akabatzen dituen mozkor ohia, edo multinazionalen patenteen bidez egiten duten terrorismoa.

Fanatiko eta sektario, orde, besteak dira beti. ■